

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

240 positibo berri  
1.757 hildako EAEn  
7.867 positibo guztira\* UCln EAEn

### NAFARROAN

196 positibo berri  
540 hildako  
11.598 positibo guztira UCln Nafarroan

\*HERNANIN 229 (+6), ASTIGARRAGAN 51 (+3)

## PCR testen baliogabetasunaz edota hartutako neurrien kalteez, hitzaldia gaur Asier Galanek

'Desmontando la pandemia' hitzaldia antolatu du Esna Hernanik, 19:00etan hasita Atsegindegin. Biokimikan doktorea da Asier Galan.

HERNANI ESNA HERNANI

COVID-19aren pandemiaren inguruan bestelako ikuspegi bat emateko asmoz, *Desmontando la pandemia* hitzaldia antolatu du Esna Hernanik antolakundeak, gaur arratsalderako. Atsegindegin izango da, 19:00etan, eta Asier Galanek eskainiko du. Biokimikan doktorea da Galan, eta

epigien, Tilosetan, gai honen inguruan. COVID-19ari buruz gobernuak eta hedabideek ematen duten informazioaren eta bertsioaren kontra azaldu da Esna Hernanik, salatuz «munduko populazioa murrizteko helburuarekin» planeatutako pandemia bat izan dela, eta horretarako, «gizakien DNA aldatuko duten txertoak» ezarri nahi dizkietela pertsona guztiei: «pertsonen antzutasuna, gaixotasuna eta heriotza eragiten duten txertoak dira; oso arriskutsuak, beraz».

epigien, Tilosetan, gai honen inguruan. COVID-19ari buruz gobernuak eta hedabideek ematen duten informazioaren eta bertsioaren kontra azaldu da Esna Hernanik, salatuz «munduko populazioa murrizteko helburuarekin» planeatutako pandemia bat izan dela, eta horretarako, «gizakien DNA aldatuko duten txertoak» ezarri nahi dizkietela pertsona guztiei: «pertsonen antzutasuna, gaixotasuna eta heriotza eragiten duten txertoak dira; oso arriskutsuak, beraz».

## Pandemiaren beste ikuspegi bat azaleratuko du biokimikan doktoreak

Era berean, diote «positibo faltsuak» diren PCR probak egiten ari direla, eta maskarillen erabilera pertsonen immunologia eta defentsak ahultzen dituela. «Azken fasean, arazoaren konponbidea delakoan, txerto hiltzailearen onarpena lortu nahi dute, gizartearen aldetik». K

## «Emanaldian ezin baditugu muxuak fisikoki eman, modu magiko batean egingo dugu»

'Bizi dantza' emanaldia eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek, bi saiotan, larunbatean Atsegindegin. Bigarreneko sarrerak badaude oraindik, Musika Eskolan edo 'katxiporreta.eus' webgunean.

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Urtero bezala, «baina aurten zalantza askorekin», Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ekarriko ditu herrira Hernanik Musika Eskolak. Etzi izango da, larunbatekin, eta saio bakarra ez, bi eskainiko dituzte, arratsaldeko 16:30etan eta 19:00etan, Atsegindegin: «250 lagunera mugatu behar izan dugu aforoa, eta aurreneko saiorako sarrerak azkar saldu zirenez, bigarren bat antolatzea erabaki genuen», azaldu zuen Musika Eskolako Maribel Insaustik, emanaldia-aren aurkezpenean.

19:00etako saio horretarako sarrerak badaude oraindik, eta Musika Eskolan edota *katxiporreta.eus* webgunean eskuratu daitezke, 8 euroan.

Horrelako emanaldiak anto-

latzeak duen garrantzia nabarmendu zuen Oier Agirresarobe zinegotziak: «berezi garrantzitsuak ditugu, une honetan, irribarreak, abestiak, dantzak... Ikasturtea ezin hobeto hasteko modua da pailazoaren bisita, bihotza pozten baitigute».

### Euskal dantzak taula gainera, doinu eta letra berriekin

*Bizi dantza* izeneko emanaldia da aurtengoan eskainiko dutena, eta euskal dantzak izango dira protagonista: «euskal dantzak eskainiko ditugu, baina doinu eta letra berriekin, Xabier Zabala eta Leire Bilbao musikarierie esker», aurreratu zuen Joxemari Agirretxek, Porrotx pailazoak, aurkezpenean.

Hernaniarrak alaitzeko asmotan etorriko dira pailazoak, beste behin: «saiatu gara asma-



Joxemari Agirretxe, Maribel Insausti eta Oier Agirresarobe, aurkezpenean.

tzen, gure sudur gorrietatik nola aldatu dezakegun mundu gris hau. Biodibertsitatea erdira jaitsi zaigu, eta gizakiak gora goaz. Guztiaz jabetzen ari gara, baina babesa gutxitzen ari zaigu. Mundua arazoz beteta daukagu, eta hori aldatu behar dugu».

Animalien azaletik arituko dira dantzan, taula gainean: «landuko dugu, alegien eta euskal dantzen bitartez, generoaren gaia, botere-harremanak...». Norberaren «barruko animalia» atera, eta dantzan egitera ani-

matu dituzte herritar guztiak.

Agirretxek azaldu zuen, era berean, azken hilabeteetan «nabarmen» geratu dela agerian, kulturaren beharra: «balkoietatik dantzatu, kantatu eta musika jo dugu. Kulturaren egoera oso prekarioan geunden, eta orain zerora jaitsi da. Egoera oso tamalgarrria da».

Horregatik, plazara aterako dira etzi, elkarrizketa maitasuna banatzeri: «ezin baditugu muxuak fisikoki eman, modu magiko batean egingo dugu». K

## Harategia itxita, COVID-19a tarteko

GOIZUETA COVID-19

Goizuetako Udalak jakinarazi du, positibo eman dutela harategiko bi langileek, Leitzaan egindako PCR probetan; eta ondorioz, itxita egongo dela harategia, datozen egunetan. Edonola ere, lasaitasun mezua helarazi nahi izan die herritarrei: «osasun agintarien arabera, ez dago arriskurik bezeroak birusaz kutsatu izateko, kasu guztietan bete direlako neurriak; 1,5 metroko tartea, musukoaren erabilera, eta 15 minutu baino gutxiagoz egotea bertan».

## Kazerolada gaur irtenbide eske, ostalariek

HERNANI OSTALARITZA

Eusko Jaurlaritzari irtenbideak eskatzeko, kazerolada eta kale buelta egingo dute gaur Hernaniko ostalariek. Arratsaldeko 20:00etatik 20:30etara izango da, Plazan hasita.

## Irteerak bertan behera, oraingoz

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Mendiriz Mendi elkarteak jakinarazi du, aurreikusita zeuden irteera guztiak bertan behera geratuko direla oraingoz, abixu berriak emate bitartean. Gainera, bulegoko zerbitzuan ere aldatetak izango dira: astelehen eta ostegunetan irekiko dute, betiko ordutegian (20:00-21:00); eta ostiraletan itxita egongo da.

## Zirkuluaren bilera gaur, lokalean

HERNANI PODEMOS-AHAL DUGU

Bilera egingo du gaur, bere lokalean (Elkano kalea 1, behe), Hernaniko Podemos-Ahal Dugu zirkuluak. 19:00etan hasita, zerbait gai landuko dituzte: eraso sexistei buruzko mozioa, Euskaraldia, Euskadiko zuzendaritzaren deialdia...

**IKATZA**  
Astigarraga

Kale Nagusia 32,  
ASTIGARRAGA  
943 55 49 89  
ikatzaberna20@gmail.com

**gse**  
Asesoreak

Aholkularitza eta  
tramitazio  
zerbitzua

Gudarien plaza, 13  
Telfnoa: 943 55 02 54  
Faxa: 943 33 58 01  
gse@gseasesores.net

**Catalana Occidente**  
Aseguruak

BAUTISTA  
BIURRARENA  
ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani  
943 33 24 40

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

**MARISCOS HERNANI**

Javier Justri  
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 2020 Hernani  
943 555 156  
mariscos.hernani

Tripontzi  
jatetxea

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTSALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

**GAUR** Giro eguzkitsuarekin jarraituko dugu, baina behe-laino batzuk agertuko dira kostaldean. Iparraldeko haizea indartu egingo da, bolada gogor batzuekin. Temperatura maximoetan ez da aldaketarik izango. **Min.14° / Max.24°**

**BIHAR** Eguzkia protagonista, bihar ere. Tarteka behe-laino batzuk agertuko dira berriro, baina eguzkitsu egongo da. Iparraldeko haizearekin segiko dugu, baina tenperaturak koxka bat egingo du gora, eta giro atsegina izango dugu. **Min.14° / Max.25°**

**DOBERA** EUSKARA ELKARTEA

**LAGUNTZAILEK**

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia Auzo Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ESKUA JARRAIBITZA GOBIERNO VASCO  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## Azken eguna gaur, anfibio eta narrastiak ezagutzeko irteerarako

Etzi izango da, doan. Interneten hartu behar dira gonbidapenak.

**HERNANI** JARDUERA FISIKOA

Zabalik dago kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea, eta ikasturteari hasiera emateko, ekintza berezi bat antolatatu du Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirola Sailak: irteera egingo dute etzi, herriko anfibio eta narrastiak ezagutzeko, Aranzadi Zientzia Elkarteko Iñaki Sanz-Azkue eta Egoitz Alkorta hernaniarren eskutik.

Goizeko 10:00etan hasiko dute irteera, Ekogunean; baina asmoa da bertara elkarrekin joatea oinez, eta 09:00etan ja-



Anfibio eta narrastiak ezagutzeko dituzte herritarrek, Aranzadiko kideen eskutik.

rri dute hitzordua, kiroldegiko beheko sarreran.

Irteeran parte hartzea doakoa izango da, baina 20 laguneko taldea izango da gehienez ere; eta horregatik, gonbidapenak hartu behar dira inter-

neten: [bibe.me/events](http://bibe.me/events). Herritar bakoitzak lau hartu ditzake, eta gaurkoa da azkeneko eguna.

Herritar guztientzako moduko irteera da, baina bereziki familien eta gaztetxoek neurria antolatua. **K**

## Matrikula epea zabalik, Astigarraga eta Hernaniko AEK euskaltegietan

Euskaltegian bertan edo telefonoz egin daiteke, irailaren 25era arte; eta plaza mugatuak izango dira aurten, COVID-19a dela eta.

**ASTIGARRAGA-HERNANI** EUSKERA

Matrikula epea zabaldu du Hernanialdeko AEKk, eta beraz, dagoeneko eman daiteke izena, hasi berri den ikasturterako, Astigarragako eta Hernaniko eus-

kaltegietan. Irailaren 25era arte dago matrikula egiteko aukera, eta COVID-19a dela eta, plaza mugatuak izango dira aurten.

Matrikula egiteko, euskaltegietara jo daiteke, bai Astigarragan (Kale Nagusia 48), baita

Hernanin ere (Larramendi kalea 11, behe), ondorengo egun eta ordutegietan: astelehen eta asteazkenetan, goizeko 09:00etatik 13:00etara; eta astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Telefonoa ere eman dute, informazioa eskatzeko, zalantzak argitzeko edo matrikula egiteko: 607 610 687 (Astigarraga), eta 607 592 864 (Hernani). **K**

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Ondorioak ez ditzala langile klaseak ordaindu!

Kurtso berria hasi da eta ofentsiba burgesak aurrera darrai. Hezkuntza komunitatea osatzen duen langileriaren osasuna bermatua egon arte, klase presentzialen gelditzea exijitzen dugu, eta horretarako irailaren 15ean greba egingo dugu EAEn.

Krisiaren ondorioz, hezkuntzan digitalizazio prozesu bat gauzatzen ari da, bai pandemiak ahabidetu duelako eta baita soldatapeko lanaren konposizioan ematen ari diren aldeketek, inteligentzia artifizialaren garapenak, adibidez, gaitasun digitalean trebatzea eskatzen dutelako. Egoera honen aurrean ezin dugu egoerari eusteko eskaera batzuetara mugatu; hezkuntzaren gaineko kontrola da

ezarri behar den baldintza, ikasle langileon osasuna eta interesak babes daitezzen. Hala ere, neurri minimo batzuk exijitu eta aplikatzea beharrezkoa da, beti ere kontuan hartuz erroko arazoa ez dela instituzio burgesen gestio penagarri mugatzen, baizik eta hezkuntza sistema kapitalistak ikasle langileon osasuna eta interesak ziurtatzeko duen ezintasun objektiboetara.

Dinamikaren helburua langileok burgesiaren ofentsibaren ondorioak ez ordaintzea den heinean, plazaratu beharreko mezua argia da: hezkuntzaren gaineko langile kontrola, hezkuntza doakoa, kalitatezkoa eta unibertsala izan dadin. Hori lortzera begira, hainbat neurri exijitzen ditugu:

1) Ikasle langileok hezkuntzarako sarbidea izan dezagun bermatzea; 2) ikasketa modalitate telematikoak sortutako zailtasun akademikoak ikasle ikasketa prozesua ez oztopatzea; eta 3) lan militante eta politikoa egiteko eskubidea (biltzekoa eta manifestatzekoa adibidez) bermatzea.

Azkenik, gonbidatzen zaituztegu, datorren irailaren 14an 11:00etan Biterin egingo dugun grebaren aurkezpena, eta horrekin batera, 15ean Donostiako Ibaeta campusean 11:00etan hasiko den manifestazioan parte hartzera. Ondorioak ez ditzala langile klaseak ordaindu!

**Markel Mendizabal Goñi**  
Ikasle Abertzaleen kidea

## Antton Apezetxea txapeldun, Antiguon

Fernandezekin batera nagusitu zen goizuetarra, Ekain Lizeaga astigarrarra eta Olaetxea mendean hartuta (22-7).

**URUMEA** ESKU PELOTA

Elkarren kontra aritu ziren Urumea bailarako bi esku pelotari, Antiguoko Torneoan, promesa mailako finalean. Eta Antton Apezetxea goizuetarrak jantzi zuen txapela, Fernandez erio-xarrarekin batera, Ekain Lizea-

ga astigartarraren eta Olaetxea mendean hartuta (22-7). Gainera, pelotari onenaren saria jaso zuen Apezetxeak berak.

Ez zen partidu luzea izan, eta nagusi izan ziren Apezetxea eta Fernandez, baina tanto politik ere jokatu zituzten. Dena den, hasieratik egin zuten ihes txapeldunek, 9-1 aurreratuta aurrena, eta 14-4 jarrira ondoren.

Lau tanto egin eta bakarria galduta bukatu zuen goizuetarrak; eta tantorik ez egin arren, bi pelota soilik galdu zituen astigartarrak. 25 minutuko iraupea izan zuen partiduak. **K**



Iñigo Larrañaga, podiumeko koxkarik gorenean, Lluçmayorren.

## Larrañaga, Espainiako txapeldun

**HERNANI** TXIRRINDULARITZA

Asteburuan jokatu ziren, Mallorcako Lluçmayor herrian, Espainiako master mailetako txapelketak. Eta bertan parte hartu bakarrik ez, txapeldun izan zen Iñigo Larrañaga hernaniarra, Master 60 katego-

rian. 67 kilometroko ibilbidean, probaren erdialdera egin zuen ihes Larrañagak, Master 50 mailako beste sei txirrindularirekin batera; eta haiekin iristeko gai izan zen JOCC Peña Otañoko ziklista, bere kategoriako txapeldun izateko.

## SagarKultur bukatzeko, bi emanaldi

**ASTIGARRAGA** ASTARBE SAGARDOTEGIA

SagarKultur dinamikari bukaera emateko, bi emanaldi antolatu dituzte asteburu honetan, Astarbe sagardotegian. Larunbatean, 22:30etan hasita, Anai taldearen kontzertua izango da aurrena, eta Natali taldearena ondoren. Eta igandean, 15:30etan, Txomin&Txistuman saioa izango da. Sarrerak [astigarraga.eus](http://astigarraga.eus) webgunean eskuratu daitezke: helduek 6,45 euro, eta adin txikioek 3,23 euro. 943 55 15 27 telefonora deituta, berriz, menuarekin batera erreserbatu daitezke.

## Jaunartzeak etzi, eta bataioak igandean

**HERNANI** ELIZA

Asteburu honetan ospatuko dira, konfinamenduaren eraginez egin ez diren jaunartzeak eta bataioak, San Joan Bataiatzailean. Larunbatean izango dira jaunartzeak, 11:00etan eta 12:30etan; eta igandean bataioak, 12:00etan.

**IRAGARKI MERKEAK**

**Emakume euskalduna behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko**, esperientziaduna.

Soziosanitarioa edo tituluduna izan behar du. **Deitu: 650 015 489**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**